

# JOSE PAULO ULIBARRI'REN GUTUNAK

## 1823'AN EGIA BIZKAI'KO SINDIKUARI EGIN ZIONA

Besterik ezian, zatika-zatika eta astiro-astiro bada be, aurrera goaz Ulibarri'ren *Gutun Liburua* argitaratzen. Besteak beste, Aldizkari onek beronek emon deuskun tokiari eskerrak.

Altube'tar Sebero (G. B.) zanaren omenez Euskaltzaindiak Ger-nikan egiteko asmoa eukan batzarrerako gertatu neban au, Egia Sindikuari egin zion au 1823'an (1).

Orain emoten dogun eskutitz au, *Gutun Liburua*'ren 19-25'garren orrialdeetan dago, Ignazio Echevarria'ri egin zionaren urrengo, eta onen erantzunaren aurretik.

*N. Alzola.*

Irun'en, 1963-1964.

\* \* \*

Jaun Salatzalle edo Sindicu Vizeaico Jabede G.<sup>z</sup> Leñar eta G.<sup>z</sup> Leyalarena Don Manuel Emeterio Eguia.

Jauna: Neure Biyotzeco Beroa da guztiz andiya Vizcayaren alderaco, alan ascotan euquiten dot Guizon batzuecaz burua cer necatu (baña al-perracaz alper da Maria maquilatu beres biardu esana dan leguez) onetarico alper putz gaiptoacaz ardura biardogu Vizcayan: noaco esaten neure atzecabea eta derechadana.

Ylonen amasei garrenian noyela Bilboco areatzeti biera aurquitu nendun Sudupe aldeco gudutar bat derechat Cabu dala, emonic egun onac alcar biyoc: beingo baten asten da esaten, éà cegaiti estaude emongo anoa edo erraciñoa eureri Jaquinic ondo irabaciric euquela eurec aimbeste neque, min otz, bero, gose, egarri, gaubel eztu garraz baltzoc gaiti, arro arroric andi ustiaz bere casaca edo garriestu soñian dauquela badirudiyen bere A[xe?] putzagaz Zordeutzegula berac oñaspian igaro daben lurrec emoten daben ondasun guztiya.

(1) Beste eskutitz bat be gertatu neban bertan irakurtzeko: Ulibarri'k Altube'ko Peru jaunari egin ziona 1830'gnko. Bagillaren 27'an. Beste eraen batean argitaratuko dogu, J. 1.

guero entzunic bere miñ garratnazquia Luziperren herderiaz, eran-  
zuten deutzet modu onetan berba guichicaz, Vizcayan Guerraco guda  
amaitu esquiero, guziyac zucen etzera vicigarriya imintera ondo biar  
eguiñaz, naidala Aguintariya, naidala Soldadue, nai dala Aberatza, naidala  
languilla mota guzticoc. badagos guerran banatuac es gorputz osocoac  
biar eguiteco onetaricoac icengo dira chito ondo begiratuac biar diesan  
gausa guztiecz pozcariyoa emoteco alaco gueixo guixaxoari utze eguin  
bagaric ectan Adesquidia.

osterancian Vizcayan esjaco iñori emoten eser alperreriyan eta era  
alpertean vicitzeco ès, eguño orláco ecanduric esta icen. bacarric icen-  
dira herdaldunac nasaiqueriyan saleac, eta herderáti etorri da gazquilla  
guztiya, eta charqueri guztiya gausa ongarriya galtzeco bere Kiretzagaz.  
oneic euzcal erriyac icen dira euzkeriaz eder, garbiyac eta jakitun cintzoac  
eta Donzuac. baña vicidira motzac emen guztiyau galtzeco dan  
onodaide [sic] guztiyaz bai.

emen casa dunie? emen? quen quen orti casaca edo garri estu  
orregaz eperdi ganeco busten luqui alperra alper orregaz Vizcaitic, gura  
dabenac garriestu edo casaquia eta Soldadu icen egunic galduagaric  
Juan guerra dagoen errira Vizcaico Jaunari cerbicen ondo irme. emeti  
eruan esquiero paperac zeure eguiqueri on eta soliyacaz orduan malla  
batequin gorago iminiagaz artuco zaitu gure Jaun vizcaicoac, lagunduric  
biardan bacoche bere laneco Jaquituriaz zucen ibiliric. nora zuaz? en-  
tzun entzun! vizcayen. erenovales [sic] herdaldune etorri artian Aguin-  
tzen euzcaldunari esta casari imini, es herdaldunic bere Aguintaritzat ô  
ezcaldunen zoricharra eta guztiya iraulic atecos aurre. onetan naguala  
agurric eguin. bagaric motz motzi Juan jatan aurreti. neure ardurari  
es alan guztiz biarleueque. Juan Vizcaiti campora.

Egun berean gauco Avemariyac jo esquiero, beste motz hategaz bar-  
din san, aen espanac beste Soñuric es euquen berakatza, porru, quinpu-  
lena baxen barrucu herderazco Biotz kiketza [?] eiteutzen alaco ber-  
bequeria. esateban bai guc ibili garien leguez Munduko neque mingarratz  
gaubeletan. eta orain es eguin biar dana? begiratuaz bada urteiten ba-  
dogu campora Domoninoac [sic] eruan gituz hultzac bai, ardura icengo  
da arrapacen dugunagaz bai.

Guero nic esanneutzen guizon alpergaitzoen Soñure eiten dabela  
berba, estaiyela esan alaco berbaric. bestiari legues esan neutzen, eta  
esaten deutzedala, vizcaitar garbi eta sendoac guerra amaitu ta echeria  
doaz bereicerdiyequin irabaciric ogui Jatera, dabilenac besteren ustiaz  
alperrrian urtenic batic bestera vide onbagaric charto, orlaco achaqui-  
yecaz lapurra legues laster icengo da arrapatua, eta guztiz galdua. oneric

aurrera nai dala casacadune naidala edocin motacoa ibiliric alperreriyan icengoda oratua. guradabenac ibili casacagaz, Jauna Erregue gana Juan, alan ichi nendun burua berotuten itsilic [sic], eta neu Agur eguin ta etorri nintzan echera.

Baguilla 29g.<sup>n</sup> aci cirian Mikelete Sartzeco, neu vitartecotzat iminten, gustisco estutasunagaz herdaldunac, eta euzcaldunac, eta bat neure echian ibilieco bat mandoacaz, estaqui letraric Bilbo Sarren atziya, esta guztiz biarzalea, nic erantzun neutzien guiza onetan:

Orain Mikelete sartzeco biardabe Jaquin euzquera ondo guztiz, escola, escrivietan, icazquizuna edo Doctrina, erreguec edo Otoitzac Jaincoari, eta Donzellyari, eleizaco lanacaz. baita yminteoco chito polito amatac edo Cembatac egunerocoac, eta biar balitz Vizcay guzticcoac, azcotan euzcaldunac biardau erdaldunari beguitandu eguiteco gausac goarpean iñoc iguerri bagaric biar balitz eguin. baita icen biardala Zuzparra, iritzarriya, gogorra eta lan biarratecoa [sic] ez naguiya, ez alperra ta ganobaraco, gorputze arine, eta ondo eguiña Sancodune, eta ez praca luzedune mariñela edo isas guizona., Alturan luzerie canabi seine onza ygaroten dana, galtzaidu Janciric ibilteco, ez izanic onelacoa estala etartu edo amitidu artuteco Vizcaico Jauntasunean. modu edo Guiza onetan biraldutен nendun nic orretaraco etorten cirienac guztiyec ixil ixilie Agur eguinagaz.

orregaitic edo audala vitarte, esto gureizen Jaun Ecautu edo Diputau gana Juan aspaldiyan, lengo egunecoa ecin quendu nendun echeti eguindaiyela mezede Ecautue gana Juateco artu daijentzat Mikeletetzat, eta nic esan neuntzen berorregana bayetz, eta guero vidian aurkitu nendun datorrela berorre onancha, eta poztu nintzan es artutiaz, esandodan lenagoco guizantasuna caiti.

Jaqinic Aita onaen Semi dan ateraric bere garbitasuna, estaúla griña eta ecandu charric cetan bere, Vizcaico Jauntasuncan egoteco, ez tabaco quiretzit, espada oso osoa, eta Arguiya, len Vizcayen etzan etartu edo amitidu Sula [?] ric, edo pipia erabilitebana mayen ganeioacaz [ganekoacaz?] bascariten Salaco guizon atzitubec ecarriya mauruben antzara [sic], eta berac ichirico grinac dira U.<sup>a</sup>

Mikeletec chonta errialen modura icen biardira Janciric adietan emoteco Biyotzeco zuba eta inderra otsoen narru ulliaz galtzaiduz aipainduric [sic] or equzten dodaz anguilien modura Janciric ilun, triste, motel, esdirudiyela vizcaitarrae dirien U.<sup>a</sup>

Guardia onoren icena Vizcayan! noc ichitendau? guztijac gara bardinac, orren ganian asco esango neunque sindicu Jauna; orren artian

egondira erbestetuco charrena eta Arguitasun bagaric, nondi nora agertu da icen ori?

Orain lar da berba aldea, eta lar bere gogaitua eta Barcatu neure utzetasuna. Jaungoicoac emon daiyola urte lucetaco osasuna Vizcaitarren aldeco Beguirallea gueure poru osos veteaz. alan deceasen dot oñetan mun eguinaz berorren Cerbizari veticoa Cemendiyen 29 g.<sup>n</sup> 1823 g.<sup>n</sup> Urtian.

Josef Paulo Ulibarri-co Galindez.

Orain Gutun ganecoa alan, edo Juantzan.

Abenduan 30.<sup>n</sup> eguerdiyan biraldu neuzan Lucas ybarragaz.

JAUN ZALATZARI VIZCAICO JAUVEDE GUZTIZ LEÑAR eta GUZTIZ LEYALARENA.

D.<sup>n</sup> Manuel Emeterio Eguia.

Sindico de este M. N. Y M. L. S.<sup>o</sup> de Vizcaya. Abando.